

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

VITORIA-GASTEIZKO UDALA

GIZA BALIABIDEEN SAILA

Udaleko hainbat sailetako lanpostuen zerrenda aldatzea onetsi zuen

Gasteizko Udaleko hainbat sailetako lanpostuen zerrenda aldatzea onetsi zuen Tokiko Gobernu Batzarrek 2021eko abenduaren 16an egindako bilkuran.

Lanpostuen zerrenda tresna tekniko bat da, zeinen bitartez Gasteizko Udalak bere barne egiturak arrazionalizatu eta antolatzen baititu, sailen egungo premien arabera behar diren langileak zehazten —lanpostuan jarduteko bete beharreko baldintzak finkatuz, baita lanpostuen beren ezaugarriak ere—, eta horietako bakoitza sailkatzen. Era berean, zerrendaren beraren izaera publikoa ezartzen du.

Lanpostu bakoitzeko, honako hauek adierazten dira lanpostuen zerrendan: izena, zein sailari atxikitzen zaion, dedikazio-erregimena, bertan jarduteko bete beharreko baldintzak, taldea, eskala eta azpieskala, destino-osagarriaren maila, hornitzeko sistema eta berariazko osagarria.

Zentzu horretan, Enplegatu Publikoaren Oinarrizko Estatutuaren testu bateratua onetsi zuen urriaren 30eko 5/2015 Legegintzako Errege Dekretuak 74. artikuluan xedatzen duenaren arabera, herri administrazioek lanpostuen zerrenden bitartez edo antzeko antolaketa-tresnak erabilia egituratuko dute beren antolamendua. Zerrenda horietan, gutxienez, honako hauek jaso behar dira: lanpostuen izena, lanbide-sailkapeneko taldeak, hala dagokionean, atxikita dituzten kidegoak edo eskalak, lanpostuak betetzeko sistemak eta ordainsari osagarriak. Tresna horiek publikoak izango dira”

Uztailaren 6ko Euskal Funtzio Publikoaren 6/1989 Legearen 18.1 artikulua jasotzen duenez, berriz, “lanpostu-zerrenden bitartez sortu, aldatu edo deuseztatuko dira lanpostuak”

Era berean, administrazio publikoak, bere burua antolatzeko duten eskumena dela eta, zerbitzuak egokien deritzon moduan antola ditzake, eraginkorragoak izan daitezten, Konstituzioaren 103.1 artikuluan emandako aginduaren ildotik, eta bere interesak betetzeko antolaera egokienak aukeratu.

Hortaz, efikazia lortze aldera, eta kontuan izanik zenbait lanpostutan egokitzapenak egiteko premia, Antolakuntzaren Kudeaketaren Zerbitzuak txosten arrazoitua egin du, beharrezkotzat jotzen duelarik aldaketa (dosierrean jaso da).

Aldaketa honek hiru atal ditu: Lehenengoa, lanpostua eskuratzeko baldintzak aldatzeari buruzkoa; bigarrena, lanpostuaren osagarrien edo dedikazioen aldaketak biltzen dituena; eta hirugarrena, lanpostuen izenak eta horien beste ezaugarri batzuk aldatzen dituena. Hori guztia, erakundeak eman behar dituen zerbitzuei erantzuteko.

Enplegatu Publikoaren Oinarrizko Estatutuaren testu bateratua onetsi zeneko urriaren 30eko 5/2015 Legegintzako Errege Dekretuaren 37.2 artikuluan aurreikusitakoarekin bat etorritik, negoziazio-bilerak egin dira udal honetako langileen batzordearekin, 2021eko azaroaren 16an eta 19an.

Egin beharreko nahitaezko txostenak egin dira: ekonomikoa, aldaketa egiteko kreditu-zuzkidura badagoela adierazten duena; Kontu-hartzailetza Nagusiaren aldeko txostena, eta, azkenik, Eusko Jaurlaritzako Hizkuntza Politikarako Sailak hizkuntza-eskakizunei buruz emandakoa. Era berean, onartuko den aldaketari buruzko txosten juridikoa egin da.

Beraz, aurreko paragrafoetan adierazitakoa kontuan izanik, Toki Jaurbidearen Oinarriak arautzen dituen 7/1985 Legearen 127. artikulua –abenduren 16ko 57/2003 Legeak aldatua– aitortzen dizkion eskumenez baliatuz, eta 2019ko ekainaren 21eko erabakiaren bitartez haren esku utzitako aginpidea betez, Giza Baliabideen Arloko zinegotzi ordezkariak erabaki proposamen hau aurkezten dio Tokiko Gobernu Batzarrari:

Erabaki-proposamena

Lehena. Udaleko zenbait sailetan indarrean dagoen lanpostuen zerrendaren aldaketa onestea, eranskinean adierazitakoaren arabera.

Bigarrena. Aldaketak onesten denetik izango ditu ondorioak.

Hirugarrena. Giza Baliabideen Sailari agintzea behar diren izapideak egin ditzan lanpostuen zerrendak aldatzeko.

Laugarrena. ALHAOn argitaratzea lanpostuen zerrenda aldatzeko erabaki hau.

Vitoria-Gasteizen, 2021eko abenduaren 2an

Giza Baliabideen Saileko zinegotzi ordezkaria
IÑAKI GURTUBAI ARTETXE

ERANSKINA

A. Hainbat lanpostutan sartzeko baldintzak aldatzea.

02. Lurraldea eta Klimaren aldeko Ekintza.

Prestakuntza osagarriaren baldintza aldatzea Hirigintza Antolakuntza Gauzatzeko Atalari (021102.100) atxikitako plangintzarako buru lanpostuari (ID 34). Hornitzeko sistema: lehiaketa; taldea: A1; titulazioa: 602 –arkitekturan lizentzia, eta gradu-ondoko prestakuntza, hirigintza arloan (gutxienez 600 ordu egiaztatuta)–; eskala: administrazio berezia: azpieskala: tekniko; mota: goi mailako teknikaria (2110A): hizkuntza eskakizuna: 3.a, derrigortasun data: 2019ko otsailaren 1ean; destino osagarria: 28; berariazko osagarria: 20; dedikazioa: ehuneko 115; IT txartela: 05.

Aurrerantzean:

Hirigintza Antolakuntza Gauzatzeko Atalari (021102.100) atxikitako plangintzarako buru lanpostua (ID 34). Hornitzeko sistema: lehiaketa; taldea: A1; titulazioa: 602 –arkitekturan lizentzia, eta gradu-ondoko prestakuntza, hirigintza arloan (gutxienez 400 ordu egiaztatuta)–; eskala: administrazio berezia: azpieskala: tekniko; mota: goi mailako teknikaria (2110A): hizkuntza eskakizuna: 3.a, derrigortasun data: 2019ki otsailaren 1ean; destino osagarria: 28; berariazko osagarria: 20; dedikazioa: ehuneko 115; IT txartela: 05.

B. Lanpostuaren osagarriak edo dedikazioak aldatzea.

15. Mugikortasuna eta Espazio Publikoa.

Administrazio Zerbitzuko Administrazio Atalari (151401.2005) atxikitako administrari lanpostu bat (ID 257) aldatzea. Hornitzeko sistema: lehiaketa; taldea: C1; titulazioa: Z300 –batxilergo titulua, Lanbide Heziketako teknikariaren lanpostua edo titulazio baliokideak nahiz homologatuak (LOE)–; eskala: administrazio orokorra; azpieskala: administrazioa (1200C); hizkuntza eskakizuna: 2.a, derrigortasun data: 1990ko urriaren 31n; destino osagarria: 19; berariazko osagarria: 181; dedikazioa: ehuneko 115; IT txartela: 03.

Aurrerantzean:

Administrazio Zerbitzuko Administrazio Atalari (151401.2005) atxikitako administrari lanpostu bat (ID 257). Hornitzeko sistema: lehiaketa; taldea: C1; titulazioa: Z300 — batxilergo titulua, Lanbide Heziketako teknikariaren lanpostua edo titulazio baliokideak nahiz homologatuak (LOE)–; eskala: administrazio orokorra; azpieskala: administrazioa (1200C); hizkuntza eskakizuna: 2.a, derrigortasun data: 1990ko urriaren 31n; destino osagarria: 19; berariazko osagarria: 176; dedikazioa: ehuneko 100; IT txartela: 03.

23. Hezkuntza eta Kultura.

1. Aldatzea Kultura Zerbitzuko Musika Bandaren Atalari (231210.5015) atxikitako musika bandako zuzendari lanpostua (ID 1252)). Hornitzeko sistema: lehiaketa; taldea: A1; titulazioa: 616 (orkestra zuzendari titulua); eskala: administrazio berezia; azpieskala: tekniko; mota: goi mailako teknikaria (2110A); hizkuntza eskakizuna: 3.a, derrigortasun datarik gabea; destino osagarria: 28; berariazko osagarria: 20; dedikazioa: ehuneko 115; IT txartela: 05.

Aurrerantzean:

Kultura Zerbitzuko Musika Bandaren Atalari (231210.5015) atxikitako musika bandaren zuzendari lanpostua (ID 1252). Hornitzeko sistema: lehiaketa; taldea: A1; titulazioa: 616 (orkestra zuzendari titulua); eskala: administrazio berezia; azpieskala: tekniko; mota: goi mailako teknikaria (2110A); hizkuntza eskakizuna: 3.a, derrigortasun datarik gabea; destino osagarria: 28; berariazko osagarria: 20; dedikazioa: ehuneko 100; IT txartela: 05.

2. Kultura Zerbitzuko Folklore Akademia -Txistu Banda (231202.404) Atalari atxikitako folklore akademiako buru lanpostua (ID 7462) aldatzea. Hornitzeko sistema: lehiaketa; taldea: C1; titulazioa: 400 (goi mailako batxilergoa, LH II edo baliokideak eta erdi mailako musika irakasle titulu ofiziala, edozein espezialitatetan); eskala: administrazio berezia; azpieskala: zerbitzu bereziak; mota: zeregin bereziak (2230C); hizkuntza eskakizuna: 2.a, derrigortasun data: 2002ko abenduaren 31n; destino osagarria: 21; berariazko osagarria: 135; dedikazioa: ehuneko 100; IT txartela 05.

Aurrerantzean:

1. Kultura Zerbitzuko Folklore Akademia -Txistu Banda (231202.404) Atalari atxikitako folklore akademiako buru lanpostua (ID 1252)). Hornitzeko sistema: lehiaketa; taldea: C1; titulazioa: 400 (goi mailako batxilergoa, LH II edo baliokideak eta erdi mailako musika irakasle titulu ofiziala, edozein espezialitatetan); eskala: administrazio berezia; azpieskala: zerbitzu bereziak; mota: zeregin bereziak (2230C); hizkuntza eskakizuna: 2.a, derrigortasun data: 2002ko abenduaren 31n; destino osagarria: 21; berariazko osagarria: 135; dedikazioa: ehuneko 115; IT txartela 05.

C. Lanpostuak aldatzea.**02. Lurraldea eta Klimaren aldeko Ekintza.**

Landa Zerbitzuko Nekazaritza Eremuaren Atalari (021801.306) atxikitako mendietako landa-buru lanpostua aldatzea. Hornitzeko sistema: lehiaketa; taldea: A1/A2; titulazioa: 630 (goi mailako mendi ingeniari) edo 510 (ingeniaritza tekniko, mendi espezialitatean); eskala: administrazio berezia; azpi-eskala: tekniko; mota: goi mailako teknikaria (2110A); eskala: administrazio berezia; azpi-eskala: tekniko; mota: erdi mailako teknikaria 2120B; hizkuntza eskakizuna: 3.a, derrigortasun datarik gabea; destino osagarria: 25 eta berariazko osagarria: 50 A1 taldearentzat eta 55 A2 taldearentzat; dedikazioa: ehuneko 100; IT txartela 05.

Aurrerantzean:

Informatika aplikazioetako goi mailako teknikaria, Udal Administrazioaren Eta Eraldaketa Digitalaren Sailaren Aplikazioen Zerbitzuari atxikia (101101.5026). Hornitzeko sistema: lehiaketa; taldea: A1; titulazioa: 652 (informatikako, zientzia zehatzetako edo zientzia fisikoetako lizentzia; informatika ingeniari, goi mailako telekomunikazio ingeniari edo goi mailako elektronika ingeniari), D41 (ingeniaritza informatikoko gradua), D03 (informatika), B10 (matematika) edo B08 (fisika); eskala: administrazio berezia; azpi-eskala: tekniko; mota: goi mailako teknikaria (2110A); hizkuntza eskakizuna: 3.a, derrigortasun datarik gabea; destino osagarria: 24 eta berariazko osagarria: 70; dedikazioa: ehuneko 100; IT txartela 05.

Postu hau Udal Administrazioaren eta Eraldaketa Digitalaren Saileko Aplikazioen Zerbitzuko Aplikazio Atalari atxikitzea (101101).

09. Giza baliabideak.

1. Antolakuntzaren Kudeaketaren Zerbitzuaren Zerbitzuen Atal Osagarriari (091502.110) atxikitako Informatika Aplikazioen buru lanpostua (ID 1465) aldatzea. Hornikuntza-sistema: lehiaketa; taldea: A1; titulazioa: 626 (informatikako, zientzia zehaztutako edo zientzia fisikoetako lizentzia); eskala: administrazio berezia; azpi-eskala: teknikoa; mota: goi-mailako teknikaria (2110A); hizkuntza-eskakizuna: 3.a, derrigortasun-datarik gabe; destino-osagarria: 28; berariazko osagarria: 20; dedikazioa: ehuneko 115; IT txartela: 05.

Aurrerantzean:

Ustiapen eta sistemen goi mailako teknikaria, Udal Administrazioaren Eta Eraldaketa Digitalaren Sailaren Ustiapen eta Komunikazio Zerbitzuari atxikia (101201.5027). Hornitzeko sistema: lehiaketa; taldea: A1; titulazioa: 652 (informatikako, zientzia zehaztutako, zientzia fisikoetako lizentzia; informatika ingeniariaritz, goi mailako telekomunikazio ingeniariaritz edo goi mailako elektronika ingeniariaritz), D28 (komunikazio sistemen ingeniariaritz) D28 (telekomunikazio teknologien ingeniariaritz), D20 (informazio sistemen ingeniariaritz), D20 kudeaketarako informatikako eta informazio sistemen ingeniariaritz), D12 (komunikazioetako ingeniariaritz elektronikoa) D12 (ingeniariaritz elektronikoa), D03 (informatika), B10 (matematika) edo B08 (fisika); eskala: administrazio berezia; azpi-eskala: teknikoa; mota: goi mailako teknikaria (2110A); hizkuntza eskakizuna: 3.a, derrigortasun datarik gabea; destino osagarria: 24 eta berariazko osagarria: 70; dedikazioa: ehuneko 100; IT txartela 05.

Postu hau Udal Administrazioaren eta Eraldaketa Digitalaren Saileko Ustiapen eta Komunikazio Zerbitzuko Ustiapen Atalari atxikitzea (101201).

2. Antolakuntzaren Kudeaketaren Zerbitzuaren Zerbitzuen Atal Osagarriari (091502.108) atxikitako strategi plangintzako buru lanpostua (ID 7633) aldatzea. Hornikuntza-sistema: lehiaketa; taldea: A1; titulazioa: 600 (goi mailako unibertsitate titulua edo baliokidea); eskala: administrazio berezia; azpi-eskala: teknikoa; mota: goi-mailako teknikaria (2110A); hizkuntza-eskakizuna: 3.a, derrigortasun-datarik gabe; destino-osagarria: 28; berariazko osagarria: 20; dedikazioa: ehuneko 115; IT txartela: 05.

Aurrerantzean:

Informatika aplikazioetako goi mailako teknikaria, Udal Administrazioaren Eta Eraldaketa Digitalaren Sailaren Aplikazioen Zerbitzuari atxikia (101101.5026). Hornitzeko sistema: lehiaketa; taldea: A1; titulazioa: 652 (informatikako, zientzia zehaztutako, zientzia fisikoetako lizentzia; informatika ingeniariaritz, goi mailako telekomunikazio ingeniariaritz edo goi mailako elektronika ingeniariaritz), D41 (ingeniaritz informatikoko gradua) D03 (informatika), B10 (matematika), edo B08 (fisika); eskala: administrazio berezia; azpi-eskala: teknikoa; mota: goi mailako teknikaria (2110A); hizkuntza eskakizuna: 3.a, derrigortasun datarik gabea; destino osagarria: 24 eta berariazko osagarria: 70; dedikazioa: ehuneko 100; IT txartela 05.

Postu hau Udal Administrazioaren eta Eraldaketa Digitalaren Saileko Aplikazioen Zerbitzuko Aplikazio Atalari atxikitzea (101101).

3. Antolakuntzaren Kudeaketaren Zerbitzuaren Zerbitzuen Atal Osagarriari (091502.107) atxikitako mantentze arloko administrazio buru lanpostua (ID 796) aldatzea. Hornikuntza-sistema: lehiaketa; taldea: A1; titulazioa: 601 (ekonomia eta enpresa zientzietako lizentzia); eskala: administrazio berezia; azpi-eskala: teknikoa; mota: goi-mailako teknikaria (2110A); hizkuntza-eskakizuna: 3.a, derrigortasun-datarik gabe; destino-osagarria: 28; berariazko osagarria: 20; dedikazioa: ehuneko 115; IT txartela: 05.

Aurrerantzean:

Informatika aplikazioetako goi mailako teknikaria, Udal Administrazioaren Eta Eraldaketa Digitalaren Sailaren Aplikazioen Zerbitzuari atxikia (101101.5026). Hornitzeko sistema: lehiaketa; taldea: A1; titulazioa: 652 (informatikako, zientzia zehatzetako, zientzia fisikoetako lizentzia; informatika ingeniariaritz, goi mailako telekomunikazio ingeniariaritz edo goi mailako elektronika ingeniariaritz), D41 (ingeniaritz informatikoko gradua, D03 (informatika), B10 (matematika) edo B08 (fisika); eskala: administrazio berezia; azpi-eskala: teknikoa; mota: goi mailako teknikaria (2110A); hizkuntza eskakizuna: 3.a, derrigortasun datarik gabea; destino osagarria: 24 eta berariazko osagarria: 70; dedikazioa: ehuneko 100; IT txartela 05.

Postu hau Udal Administrazioaren eta Eraldaketa Digitalaren Saileko Aplikazioen Zerbitzuko Aplikazio Atalari atxikitzea (101101).

4. Antolakuntzaren Kudeaketaren Zerbitzuko Zerbitzuen Atal Osagarriari (091502.1437) atxikitako hezitzaile lanpostuaren bi dotazio (ID ID1119 eta ID11851164) aldatzea. Hornitzeko sistema: lehiaketa; taldea: A2/C1; titulazioa: 506 (maisu-maistra, haur hezkuntzako espezialitatearekin, OHOk irakaslea, eskolaurreko hezkuntza espezialitatearekin) edo 320 Haurtzaindegietako LH-II edo baliokideak, 1004/1991 EDaren arabera); eskala: administrazio berezia; azpi-eskala: teknikoa; mota: erdi mailako teknikaria, eta eskala: administrazio berezia; azpi-eskala: teknikoa; mota: teknikari laguntzailea (2120B), eta eskala: administrazio berezia; azpi-eskala: zerbitzu bereziak; mota: zeregin berezietako plazak (2230C); hizkuntza eskakizuna: 3.a, derrigortasun data: 1990ko ekainaren 06an; destino osagarria: 21; berariazko osagarria: 137; dedikazioa: ehuneko 100; IT txartela 05.

Aurrerantzean:

Erdi mailako kirol koordinatzaile teknikari lanpostuaren bi dotazio, Kirol eta Osasun Saileko Kirol Zerbitzuko Kiroleko Atal Teknikoari (244005.6039) atxikiak. Hornitzeko sistema: lehiaketa; taldea: A2; titulazioa: 500 (erdi mailako unibertsitate titulua edo baliokidea) edo G00 (unibertsitate gradua); eskala: administrazio berezia; azpi-eskala: teknikoa; mota: erdi mailako teknikaria (2120B); eta eskala: administrazio berezia; azpi-eskala: zerbitzu bereziak; mota: zeregin berezietako plazak (2230B); hizkuntza eskakizuna: 3.a, (2021ko abenduaren 16an); destino osagarria: 23; berariazko osagarria: 110; dedikazioa: ehuneko 100; IT txartela 05.

Bi dotazioak Kirol eta Osasun Saileko Kirol Zerbitzuko Kiroleko Atal Teknikoari (244005) atxikitzea.

11. Gizarte Politikak, Adinekoak eta Haurrak.

Adinekoen Zerbitzuko Adinekoen Atalari (113310.5023) atxikitako geriatra lanpostuaren dotazio bat (ID1770) aldatzea. Hornitzeko sistema: lehiaketa; taldea: A1; titulazioa: 606 (medikuntzako lizentzia); eskala: administrazio berezia; azpi-eskala: teknikoa; mota: goi mailako teknikaria (2110A); hizkuntza eskakizuna: 3.a, derrigortasun data: 2007ko otsailaren 28an; destino osagarria: 24; berariazko osagarria: 70; dedikazioa: ehuneko 115; IT txartela 05.

Aurrerantzean:

Kultur Plangintzako goi mailako teknikaria, Hezkuntza eta Kultura Saileko Kultura Zerbitzuko Kultur Ekintzen Atalari atxikia (231203). Hornitzeko sistema: lehiaketa; taldea: A1; titulazioa: 600 (goi mailako unibertsitate titulua edo baliokidea) edo G00 (goi mailako unibertsitate gradua); eskala: administrazio berezia; azpi-eskala: teknikoa; mota: goi mailako teknikaria (2110A); hizkuntza eskakizuna: 3.a, derrigortasun data: 2021ko abenduaren 16an; destino osagarria: 24; berariazko osagarria: 70; dedikazioa: ehuneko 100; IT txartela 05.

Lanpostu hau Hezkuntza eta Kultura Saileko Kultura Zerbitzuko Kultur Ekintzen Atalari atxikitzea (231203).